

## 2. ERANSKINA: ALDAGAIK

### 1. Elkarrekintzaren maila.

Zein parte-hartze mota ematen da ariketan?

- a. Ariketa talde handian egiten da (gela osoa).
- b. Ariketa talde ertainetan egiten da: gela bi edo hiru taldetan banatzen da.
- c. Ariketa talde txikitan egiten da.
- d. Ariketa binaka egiten da.
- e. Ariketa banaka egiten da.

### 2. Komunikazioaren atalak: ekoizpena (output), harrera (input) eta elkarrekintza.

Komunikazioaren zein atala lantzen da ariketan?

- a. Elkarrekintzan oinarritzen da, beraz, komunikazioa ematen da.
- b. Gehien bat ekoizpenean jartzen da arreta.
  - i. Ahozko ekoizpena
  - ii. Idatzizko ekoizpena
- c. Gehien bat harreran (input) jartzen da arreta.
  - i. Entzumena
  - ii. Irakurmena

### 3. Ekoizpeneko eta elkarrekintzako jardueren izaera.

Ekoizpena (ahozkoa zein idatzizkoa) eta elkarrekintza lantzen duten jarduerak atazak gauzatzeko bideratuta daude?

- a. Bai. Hizkuntza helburu erreal batekin erabiltzen da.
- b. Ez, baina edukietan oinarritzen denez, esanahiari jartzen dio arreta. (CLIL)
- c. Ez, baina egoera fiktizioak proposatzen dira hizkuntza erabiltzeko.
- d. Ez, egitura, ahoskera edo hiztegi berria testuingururik gabe praktikatzen da.

### 4. Inputaren ulergarritasuna.

Ariketan azaltzen den hizkuntza berria testuinguru baten barne txertatuta ageri da?

- a. Hiztegi eta egitura berriak testu baten (ahozko zein idatzizkoa) barnean ageri dira eta, beraz, testuinguru esanguratsu baten barnean azaltzen dira.

- b. Hiztegi eta egitura berriak ez dira testuingurua ematen dien testu baten barnean azaltzen, baina irudi edo beste elementuren laguntza eskaintzen da.
  - c. Hiztegi eta egitura berriak testuinguruaren laguntzarik gabe azaltzen dira.
5. Hizkuntzen trataera bateratua.

Ariketek gaztelaniari edota euskarari egiten diete erreferentzia?

- a. Bai. Ariketan konparaketa esplizitua egiten da ingelesaren eta gaztelania edo euskararen artean.
  - b. Ez. Ariketan ez zaio erreferentzia esplizitua egiten gaztelania edo euskarari.
6. Aspektu kulturalen eta ohituren trataera.

Ariketak atzerriko hizkuntzari lotuta doazen aspektu kulturei eta ohiturei egiten die erreferentzia?

- a. Bai.
- b. Ez.